

Getxo >MEETING<



Urtarrilak 11

2024ko zure sakelako estrategia zehazteko aholkuak.

Denbora arin doa eta are gehiago enpresaren egunerokotasunean murgilduta gaudenean. Horrexegatik funtsezkoa da helburuak ezartzea. Denbora hartzea pentsatzeko.

Zaila egiten bazaizu ere. Gauzak egin bitartean pentsatzeko ohitura baduzu ere.

Izan ere, hobe da ibilbide bat ezartzea eta ondoren hura aldatzea urtea modu automatikoan hastea baino. Hobe da lehenengo pentsatzea nora joan nahi duzun eta ondoren eramaten uztea. Ez duzu uste?

Komeni da hainbat alderdi izatea kontuan (saioan parte hartu zutenek adierazitakoak jaso ditugu jarraian):

1. Helburuak zehaztu:

- Ekonomikoak: Zein da irabazi nahi duzun gutxieneko kopurua? Zein da izan nahi duzun soldata? Gutxieneko kopuruak zehaztu, zeure burua ez mugatzeko.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



- Posizionamendua: Nola nahi duzu besteek zu ikustea? Zein produkturekin erlazionatzea nahi duzu?
- Autozaintza: Zeintzuk dira kontuan hartu nahi dituzun alderdi garrantzitsuenak? Zure osasun fisiko, mental eta emozionala zaintzeko ezinbestekoa da, besteak beste, honako hauek kontuan hartzea: lo egitea, ondo elikatzea, ariketa fisikoa, aisialdia, etab.

2. Zure bereizgarria

Zer da zure bezeroek zugandik gehien baloratzen dutena eta nola egiten duzu? Zure bereizgarria hitzekin zehaztea lagungarria izango zaizu zure mezu eta kanpainen nabarmentzeko.

3. Zure bezero bikainak. Nortzuk dira?

Zure bezero bikainak nortzuk diren jakiteko modu bat da zehaztea nolakoak diren nahi ez dituzun bezeroak (eta zergatik) eta emaitzari buelta ematea, zeintzuk nahi dituzun zehazteko.

4. Komunikazioa eta marketina.

- Nola lortu dezakezu zure bezero bikainek gehiago erostea? Zeintzuk dira bururatzen zaizkizun ideiak edo kanpainak?
- Zer egin dezakezu zure bezero bikainak antzeko pertsonak erakarri ditzan?
- Zeintzuk dira ezaugarri horiek dituzten bezeroak zure negozioira joan daitezen abian jarri ditzakezun kanpainak edo ideiak?

Azkenik, badakizu zein den aurten izan nahi duzun indarra irudikatzen duen animalia?

Balio izan dizu? Ikusten duzunez, galdera horiei idatziz erantzutea lagungarria izango zaizu lehenesteko eta kontu estrategikoei garrantzi handiagoa emateko. Orain planak agendan sartzeko egutegia zehaztea besterik ez zaizu falta.

Urtean zehar gidatuko zaituen itsasargia behar duzulako.

Itsasargiak baliagarriak dira ez galtzeko, sakelako estrategia ere bai.